

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar taldeko bozeramaile Aintzane Ezenarro Egurbidek, indarrean den Erregelamenduaren babesean, "Felipe Gonzalezen hitzak ikertu eta gaitzesteari buruz" **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** aurkezten du, **osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin**:

ZIOA

Felipe Gonzalez Marquez Espainiako gobernuburu ohiak azaroaren 17an argitaratu zen elkarrizketa baten adierazi zuenez, "*Tuve que decidir si se volaba a la cúpula de ETA. Dije no. Y no sé si hice lo correcto*". Elkarrizketa berean Segundo Mareyren errugabetasunaz zalantzak erein zituen eta, gainera, Galindo jeneral ohiaren aldeko iritziak eman zituen. Egindako adierazpenen larritasuna ikusita, hurrengo legez besteko proposamena aurkezten du osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak Estatuko fiskaltzari eskatzen dio iker ditzala Felipe Gonzalez Marquez jaunak estatu terrorismoaz egindako adierazpenak, terrorismoari gorazarre egiten dien erabakitzeko.

Era berean, Eusko Legebiltzarrak gaitzetsi egiten ditu Felipe Gonzalez Marquezen adierazpenok.

Gasteiz, 2010eko azaroaren 22an

Aintzane Ezenarro Egurbide

Aralar taldeko bozeramailea